

# **Txomin Agirre (1864-1920): mende-mugako zurrumbilotik urrun**

*Ana M. Toledo Lezeta Dra.*

Deustuko Unibertsitatean irakaslea.

A pesar de vivir una época convulsa, a caballo entre dos siglos, la visión del mundo que dejan traslucir las poesías de Txomin Agirre es ajena a cualquier crisis. En sus obras reduce la complejidad de la realidad, siempre heterogénea, a una descripción esquemática de tipos o modelos, de su paradigma ideal del ser vasco, desde una contraposición de modelos y contramodelos.

Mende bien arteko garai nahasian bizi izan arren, bere lanetan krisirik gabeko mundua isladatzen du: errealitate heterogeneo konplexua eredu edo jende-mota jakin batzuen azalpenaren bidez sinpletu egiten du, beti ere ereduak kontrajarriz eta euskaldun idealaren ideia agertuz.

In spite of living in a convulsive period at the end of the XIX and start of the XX centuries, the vision of the world that emerges from the poems of Txomin Agirre is far removed from any sense of crisis. By counterpoising models and countermodels, the complexity and heterogeneity of the world is reduced in his works to a schematic description of the types, or models, of his ideal paradigm of the Basque.

Aurreko mendea amaitzear zegoela plazaratu zuen bere lehen eleberria Txomin Agirre idazle ondarrutarrak. Gizon apal eta zintzo moduan aurkeztu diguten Agirrek Zumaiako Karidadeko Moja Karmeldarren ikastetxeko kape-rautzak utzitako asti-orduetan burutu zuen bere *Riktrudis*, eleberri-sariketa baterako deialdia akuilu.

Resurrekzion M<sup>a</sup> Azkuek sortu eta zuzentzen zuen *Euskalzale* aldizkariak (1897-1899) lehen alea kaleratzearekin batera literatur lehiaketa baterako deialdia egin zuen. Deialdi horretako ataletariko batek “irakurgaia edo roman”a saritzen duela iragartzen du eta hurrengo urtean lehiaketaren emaitzak jendaurreratzean, Txomin Agirrerren *Riktrudis* joko du eleberri-saileko irabazle. Jarraian aldizkariaren orrialdeetan argia ikusiko du atalka-atalka ale desberdinetan. Karmelo Etxegaraik eginiko hitzaurrearekin *Auñemendiko Lorea* izenburupean argitaratu zen. Urte berean, 1898an, Euskalzalaren moldagintzak kaleratu zuen liburu gisa.

Lehen-lehenik aldizkaria izan zuten argitalpen-leku Agirrerren eleberri guztiek. Kapitulu(k) d(ir)a ale bakoitzak bereganatzen duen testu-zatia, baina aurrerantzean ez da helduko eleberria bere osotasunean aldizkarian ematera. Horrela, *Kresala Euskal-Erriaren* ale desberdinetan egongo da 1901-1905 urteen artean; ez ordea amaierararte. Osorik, liburu gisa Durangoko Florentino Elosuren etxeak eman zuen 1906 urtean. Agirrek jokabide berdina erakutsi zuen bere hurrengo eleberriarekin, *Garoarekin*, hain zuzen ere. *RIEV* aldizkariaren orrialdeetan argitratzen hasi atalka-atalka (1907) eta 1912an uzten du bukaerara heldu aurretik Florentino Elosuren etxean, Durangon, liburu gisa argitaratzeko. Azkenik, *Ni ta ni* zeritzan eleberria *Euskal Esnalean* hasi zen argitaratzen (1917). Bere lehen kapitulutuan utziko duen eleberria da. Beraz, eleberrigintzaren alorrean hiru testu burutu zituen eta laugarrenean hastapenetatik ez zen igaro.

Eleberri historikoarekin plazaratu zen, ohiturazkoekin jarraipena emateko egingizun honi eta berriro historikora itzuli zen amaitu gabe laga zuenak adierazten duenez. Honenbestez, euskal historian eta ohituretan bilatuko ditu bere istorioak asmatzeko langaiak.

Zinez, bere idaztekin ez zen mugatu eleberrigintzara. Sermoia, olerkia edo ipuina ere hartu zituen adierazpide. Dena den, eleberrietan beraietan, zalantzarik gabe, azaldu zuen munduan kokatzeko zeukan era, bere mundu-ikuskerara.

Gaurko ihardunaldiari jarri diogun izenburuak adierazten duenez, Agirrek bere hiru eleberrietan zehar azaleratzen duen mundu-ikuskerara mende-muga-ko zurrunbilotik urrun dago. Aurreko mendearen bigarren erdian jaio zen idazle ondarrutarrak bi mendeen arteko zubi horretan emango ditu ezagutze-bera bere idazlan nagusiak, eleberriak, jakina. Eleberrien argitalpen-dateak, 1898, 1906, 1912 urteak markatzen dituzte. Mende-muga krisi hitzak menderatzen duen arren, eleberri horietan ez da islatuko. Krisia da, izan ere, aurreko mun-

duaren euskarri sendoak kraskatzean azaleratzen dena. Egia absolutua, uni-bertsala eta gizaki guztiontzat baliagarri zena erdietsi zitekeela uste zuen mundu lasaia amets hutsa dela irizten diotenak zurrunbiloak harrapatu ditu eta deserosotasun hori adierazten dute beren eleberritan. Mundu egonkorra lurrikarak astintzen du eta bere zimenduak kolokan jartzen. Zurrunbilo honek, ordea, ez du harrapatuko Agirre. Krisia garaikide duen arren, bizileku sendotik idazten du: oinak lur irmean jarririk dauzka. Oinak lur irmean dituela idaztea zilegiztatzen diona zera da, zeruetan idatzita edukitzea benetako baloreen sistema. Hau da, benetako baloreen sistema emana izan zaigu eta sistema hori jarraitu besterik ez dauka gizakiak. Balore-sistema horri atxikiz zoriona lortzen da, balore-sistema horri uko eginaz zorigaitza besterik ez. Ikuspegi ziur honetatik idazten du. Erantzunak dituen mundu batetik idazten du eta ez galderak dituen batetik. Horregatik, mende-mugako krisitik urrun lekutzen da. Gatozen, ordea, xeheago azaltzera.

Aurreko mendea amaitzen eta XX. mendearen atarian egonagatik, euskal eleberrigintzaren sorreran gaude. Sorrera berankorra, jakina, euskal literatura inguratzen duten literaturen argitan, hauek Erdi Aroaz gero ari baitira lantzen eleberria. Egia esan, XIX. mendearen hasierarako, poliki-poliki, euskal hizlauru zabaltzen hasia zen ordurarte jorratutako esparru bakarra; anitzagoa bihurtzen hasia zen, baina mende-mugararte ez da helduko eleberria. Euskal idazleak adierazpen-bide berriak lantzeari ekiten dio, euskal letretan berriak ziren testu-tipoek agerrera egiten dute mende hasieratik aurrera, hala nola, autuak, alegiak, leiendak, eleberri laburrak... Prosa diskurtsiboaren barrutitik atera gabe ibilia zen euskal literaturak hesi hori hautsi eta beste prosa-modu batzutura irekiz, bere ondarea zabaltzeari ekin dio. Piskanaka-piskanaka burutzen doan prosaren esparru-hedatze honetan, malgutze-prozesu honetan Agirreraren *Auñemendiko Lorea* jar daiteke euskal eleberrigintzaren sorrera-mugarri. Beraz, lehen urratsen garaia da, euskal eleberrigintzaren jaiotzarena.

Ernetzen hasi den generoa izaki, euskal literaturaren lehenaldira begiratzean ezin aurkitu eredurik. Agirrek ez zuen euskal literaturan eredurik, ez jarraitzeko, ezta arbuiatzeko ere, eleberraren eremuan behintzat. Euskal Herriaren mugak gainditu eta garaikide duen eleberrigintza begiratzen badu errealismo-naturalismoaren aldiarekin topo egingo du. Hala ere, bidea egiten, ibiltzen hasteko tenore honetan Agirrek ez ditu hautatuko garaikide zaion eleberrigintzaren gaiak, ezta azaltzen duen mundua eta mundu hori azaltzeko darabiltzan moduak ere. Urtealdi hauetan jadanik iraganeko garaietakoa den eleberrigintza-motan aurkituko du bere adierazpen-nahiei erantzuten dien eredu, izpiritu erromantikoaz elikatu zen hartan, hain zuzen ere.

Garaikide zitzaion eleberrigintza errealista-naturalistaren ildoan utzi eta erromantizismoaren garaian landu zen eleberri historiko eta ohiturazkoen bideari lotuko zaio. Bide hauek ibiliak zituen, Agirreraren eleberriak heldu baino hamarkada batzuk lehenago, Euskal Herrian gazteleraz egindako kontaketak. Euskal Herrian XIX. mendearen bigarren erdian gazteleraz burutu zen konta-

gintzan daude Agirrek jarraitu nahi dituen ereduak. Kontagintza hori da, geografikoki ez-ezik, gai-mailan eta gizakia azaltzeko moduan hurbilen sentitzen duena. Hurbilen eta gogobetekoan. Jakina, gazteleraz dagoen heinean, eta, Agirrek euskaraz idaztean, kontagintza idatzian ibili gabeko hizkuntzak sor diezaiokeen arazo estilistikoei erantzuteko laguntza bete-betekorik ezin eskaini zezakeen. Erronka honi aurre egiteko baliapideak beste nonbait kausitu beharko zituen. Baina, gaiak eta hezurmamitu nahi zuen kontagintza-moduaren patroia aldamenean zeukan, gazteleraz idatzita.

Agirreraren *Auñemendiko Loreako* inspirazio-iturriak eta bertan adierazi nahi duen mundua Juan Venancio Araquistainen *Tradiciones vasco-cántabresen* (1866) edo Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII*n (1870) daude, bi idazleren eta bi idazlanen izenburuak bakarrik aipatze arren. Hori Euskal Herrian gazteleraz egindako literaturari buruz; izan ere, ondarrutarrari euskal literatura ez zaio arrotza, inondik inora. Agirreraren eleberrietako pertsonaiaren batek, esaterako, *Garoako* Joanesek arima bixkirik nahiko balu aurki lezake ehun eta hamar urte lehenago Juan Antonio Mogelek idatzi zuen *Peru Abarcako* Perurengan. Mogelen aututan barrena itxuratzen den Peru pertsonaia lokarri sendoek lotzen dute *Garoa* eleberriko Joanesekin.

Inspirazio-iturriei, sustraiei egindako aipamena zabalagoa izan zitekeen eta beste idazle batzuen izenak erants zitezkeen, hala nola Arturo Campionena, Jose Mari Goizuetarena, Vicente Aranarena, Antonio Truebarena, Oscar Rochelena eta abarrena. Oinarri amankomun gotorra dute batasun-gune: izpiritu erromantikoan erroturik, leienda, eleberri historikoa edo ohiturazkoa bide, mundu lasaia, egonkorra, ziuerra, uste finakoak euskarri dituen adierazi zuten. Gazteleraz egindako literaturatik hain aipamen zehatza jaso bada, Agirrek esplizituki izendatzen dituen bi idazleetara eta berauen idazlanetara mugatze arren izan da. *Auñemendiko Loreako* XII. kapituluko (“Il-gaua”) oin-ohar batean izendatzen ditu maisutzat hartuz “il-gauetako” errituaren adierazpenean. Alegia, Agirreraren aburuz, Navarro Villoslada eta Araquistain izan dira, bizitzan zehar ospetsua izan den hilari gorpu aurrean zuzenduriko eresiak eta berauen errituala testuratzean, emaitzarik hoberenak lortu dituztenak. “Il-gauetako” errituala zegoen *Amaya o los vascos en el siglo VIII*n eta *Tradiciones vasco-cántabresen* eta horiek ezagutzen dituen irakurleari *Auñemendiko Loreara* daramana txiro eta pobrea irudituko zaiola eranstean du.

Zalantzarik gabe, hor ez dira amaitzen antzekotasunak. Datu horrek idazlan horiek ezagutzen eta onesten zituela erakusten badu ere, harago jotzeko besteko argibiderik ez du ematen. Baina, izan bada datu soil honetan oinarritutako lotura baino sendoagorik.

Navarro Villosladak eta Araquistainek darabilten gaia histori leiendazkoa da. Agirrek, halaber, *Auñemendiko Lorea*rako gai historikoa hautatzen du, tradizio honetan txertatuz. Gainera, eta garrantzizkoena, ez da gai-mailako kide-tasuna, baita mundu-ikuskerak mailakoa ere.

Navarro Villosladak bere *Amayan* denboran atzera egiten du VIII. mendean kokatzeko kontatzera doan istorioa. Baita Agirrek ere VII. mendean lekuetzeko berea. Navarro Villosladak garai horretan aurkitzen dituen pertsonaiek eta gertaerek badute antzik Agirrek *Auñemendiko Lorean* VII. mendera egindako bidaian aurkitu dituenekin: nahiz batak, nahiz besteak, fede zahararen, jentiltasunaren gain fede berriak, kristau-sinismenak lortzen duen garaipena irudikatzen du. Batean, Amayak sinbolizatzen du garaipen hori, bestean Riktrudisek, Auñemendiko Loreak, berau baita bere edertasunarekin (kristautasunaren edertasuna) Portun euskal buruzagi jentila kristautzea erdiesten duena.

Araquistainek bere *Tradiciones vasco-cántabras* denboran atzera egiten duenean, Alos dorretxeko Usoa (“Gau-illa”)<sup>1</sup> edo euskaldunak erromatarren erasoetatik babesteko egindako borrokak aurkituko ditu, Lekobide, Otzoal edo Lartaun bezalako agintari eredugarriekin topo eginez (“Los cántabros”)<sup>2</sup>.

Araquistainek eta Navarro Villosladak atzera begiratzen dutenean euskaldun eredugarriak topatzen dituzte: inoiz inor erasotzen ez dutenak, erasotuak direnean erasoari aurre egiteko bakarrik indarrera jotzen dutenak, askatasun zaleak, bake zaleak, beren nortasun berezia maite dutenak eta berau gorde nahi dutenak.

Hain ereduzko portaerak erakusten dituzten pertsonaien artean egoten da bateren bat eredutik kanpo kokatzen dena, euskaldun eredugarriaren aurkako. Euskalduntasuna ez dena errepresentatzen dutenak dira: erasotuak izan ez direnean erasotzaile bihurtzen dira, edo euskaldunen nortasun berezia ez dute maite, edo... Antieredu hauek dira, konformidadea zer den ez dakitelako, beren grinak asetzea jokabide bakar eraikiz, euskaldun eredugarriak erasotzen dituztenak. Baina, azken batez, antieredu hauei dagokie istorioa sortzea, mataza ehotzea. Arrazoi sinple batengatik dira antiereduak istorio-sotzailak: beren grinak ase beharrak ekitera bultzatzen ditu, mugitzera bideratzen ditu beren nahia betetzeko. Horrela, arazoak planteatuz eta korapilatuz doaz, gatazkatsu bihurtzeraino, beren izaera paregabea erakusten ari diren euskaldun eredugarrientzat korapiloa askatu arte: euskaldun eredugarrien garaipena heldu da. Ez dago zalantzarik gainera; euskaldun eredugarrien garaipena ziurtatua dago.

Gertaera bereziak, gestak testuratuko dituzte kontaketa hauek. Ama-ordearen adulterioa salatzen eta agerian uzten duen Usoaren ekintza gogoangarria edo erromatarrek garaitzen dituzten euskaldunen balentria. Erasotzailea (ama-ordea, erromatarra) garaitua izango da eta ordena zuzena ezarria istorioaren amaieran. Askatasuna, bakea, nortasun berezia gordetzea, egia, justizia, leial-

<sup>1</sup> Ik. ARAQUISTAIN, Juan Venancio: *Tradiciones Vasco-Cántabras*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972, 452-456. orr.

<sup>2</sup> *Ibidem*, 480-498. orr.

tasuna... garaile aterako dira beti. Gesta epiko handiagoa edo txikiagoa burutuz, gaizkiaren indarra garaituko du indar zuzenak eta gaizkiaren indar horiek penitentiaren batekin ordainduko dute eragindako kaltea. Norberaren etxearen gobernurako soilik edo, muga hauek gaindituz, gizaki gehiagorentzat onuragarria den zerbait ekartzen edo erakusten duen heroe onak beti gaindituko ditu gaiztoak.

Hona bada, Navarro Villosladak edo Araquistainek edo Agirrek adierazten duten mundua. Ez da, esaterako, Barojarena edo Unamunorena, mende-muga-ko krisiak bete-betean harrapatu zituen haiena. Agirrerren *Auñemendiko Lorean* Arnaldo da euskal agintari eredugarria: frankotarren erasoeri aurre egin die euskaldunen lurak gordetzeko eta beren nortasuna babesteko. Bere bi semeak, bere ondorengoak izango ziren Joanes eta Ñigo gerrate horietan hiltzen ikusiagatik gorrotoak ez dizkio lausotzen jokabideak eta erabaki zuzenak hartzen jarraituko du Jesukristoren legeak argi egiten diola. Euskaldun fededun izateak zilegiztatzen dio portaera eredugarria. Bikote hautsiezina; izan ere, bi ezaugarri horietakoren baten gabeziak beste ezaugarria ezabatzen du. Banaezinak dira; banaketak ondorio latzak dakartza. Dena den, bikotean fededuna ezaugarria da nagusia, giltzarria, fededun izateak ematen baitu euskaldun legez jokatzeko argia. Fededun izateak erakusten die *Auñemendiko Loreako* Arnaldo eta Rikrudisi bide zuzena eta honen barnean euskaldun moduan jokatzeko ahalmena ematen. Fede horri esker ez dute huts egiten euskal portaera azaltzerakoan. Euskalduna, argi hori gabe, kristau-federik gabe, bere nortasuna galtzera iristen da. Hala gertatzen zitzaion Portun euskaldun jentilari. Jentila zenean ez zuen jokatzeko euskaldun legez; izan ere, erasotzen ez zuena erasotu egiten zuen, bere grinak asetzeko zeinahi jokabide maltzur har zezakeen ondoriotan erreparatu gabe: gezurra egiaren ordezt erabili, gezurrarekin bere herritarrengan kalte moral handiak eragin, gezurrarekin gerra bat piztera iritxi. Hitz batean, kristau-fededuna ez izateak iluntasunean noraezean dabilen izaki bihurtzen du, bere grinak asetzera bakarrik bideratzen den gizaki miserable.

*Auñemendiko Loreako* Portuni ez-ezik, *Kresalako* Indianoari ere hala gertatzen zaio: Ameriketara egindako egonaldian kristafedea galdu du eta honekin batera euskal ohiturak eta euskara jatorra, euskaldun moduan jokatzeko ahalmena galduz. Portun eta Indianoa bezala iluntasunean noraezean dabilen izaki besterik ez da *Garoako* Joanesen biloba Martin, Somorrostro aldean kristaufedea galtzen duenean.

Araquistainek, Navarro Villosladak edo Agirrek lehenaldira begiratu dutenean kontatzera zihoazen istorioak eraikitzeke, lehenaldi horretan jokabide ortodoxoak aurkitu dituzte. Edo jokabide ortodoxoak kontaktu nahi izan dituzte behintzat. Jokabide ortodoxorik erakusten ez zuen pertsonaiarik baldin bazegoen eta berau eleberriratzen bada, jokabide zuzena azaltzeko bitarteko bihurtzen delako, hain zuzen ere. Kontaketa hauetako pertsonaia protagonista, salbuespenik gabe, gizaki eredugarria izango da. Usoa izena izan ala

Riktrudis, alde handirik ez dago, behar bezala jokatzeari izango baitute oinarri amankomun sendoa. Berez, pertsonaia hauen ekintza gogoangarrien berri ematea du helburu istorioak eta ondorioz beraiek eraikitzen dute kontaketa-aren ardatza. Pertsonaia-protagonista hauen balore-sistematik urruntzen direnak kontaktetara ekartzean, aitzaki huts bihurtzen dira, protagonistaren balore-sistemak gehiago distira dezan.

Pertsonaia-protagonistaren jarrera paradigmaticoa zilegiztatzen duen euskarria kristau-fedea da. Kristau-federik ortodoxoena gidari duten pertsonaiak aurkitu dituzte Euskal Herriaren lehenaldian eta heterodoxoren batekin topo egiten badute, pertsonaia-protagonistaren aurrez-aurre jarriko dute bien arteko alde ikaragarria -amildegia- nabarmendu dadin.

Agirrek lehenaldi urruna laga eta lehenaldi hurbilean kokatzen dituen bere istorioak, *Kresalan* eta *Garoan* gertatzen den moduan mundu-ikuskerari berdina erakusten du: bada benetako balore-sistema bat eta sistema horren arabera bizi direnak; badira, baita ere, benetako balore-sistema hori ukatzen duten gutxi batzuk. Gutxi hauek ortodoxoak eta berauen paregabatasuna areagotzeko balio duten heterodoxoak dira. Heterodoxo horiek heterodoxiaren esperpento bihurtzen dira eta ortodoxiaren apologia hiperbolikoa egiteko bitarteko. Heterodoxia irriargi uzten da ortodoxia azpimarkatuago gelditi dadin.

Ehun eta hamar urte atzera egin eta aurki daiteke loturarik Mogelen *Peru Abarcako* Peru eta *Garoako* Joanesen artean. Peruk eta Joanesek maisuak izaki, zalantza zer den ez dakite, euskal ohiturak eta kristau-sinismena erakusten dute, euskara eta baserriko bizitza goretzen dituzte. Mogelek eta Agirrek testua, besteak beste, balore hauen defentsa egiteko erabili dute, lehenak, autua adierazpen-bide hartuaz, bigarrenak, eleberria.

Ehun urte luze horietan hainbat gertaera historiko garrantzizko bizi izan ditu euskal gizarteak, baita aldaketa nabarmenak jasan ere: bi gerrate karlista, industrializazio modernoaren sorrera ez-ezik, ibilbidearen lehen urratsak, Ameriketarako emigrazioaren handitzea, hirien hazkuntza demografikoa, eskolaratzearen ugaltzea (nahiz eta erdaraz izan) eta abar. Literatur generoen alorrean eleberria izan da gizarte-bizitzari eta bere gorabeherari lotuen garatu den generoa. Eleberrigilea batipat "besteetaz" arduratu da, hau da, "ni" baten-gandik kanpo gelditzen denaz, munduaz eta gizakiak mundu horrekin ezartzen dituen harremanez. Horregatik eleberrigilea oso sentibera azaldu da gizarteak bizi dituen kezka, nahi, arazo eta abarretaz. Hor egonik eleberrirako langaia, langai horiek abiapuntu sortu ditu bere istorioak eta istorio hauen bidez "erretiratu" gizarte hori, ez dokumental batekin egiten duen eran, jakina, baikik eta "erretiratu" sinboliko bat hezurramituz.

Alabaina, ez Agirrek, ez bere garaikideek bihurtuko dute nobela gertaera eta aldaketa horiek gizartean izan duten eraginaren adierazpen. Lehenxeago esanenez, lokarri sendoek lotzen dute 1912an kaleratzen den *Garoako* Joanes eta 1802rako izkuizkribu-mailako bizitza zuen *Peru Abarcako* Peru.

Gizartea ez da zerbait homogenoa, heterogenoa baino. Giza taldeak daude, garaikideak izan arren, mundu-ikuskeraz desberdinak dituztenak. Agirrek giza talde horietako baten mundu-ikuskeraz adierazi zuen, baina giza talde hau ez da bere balore-sistema kolokan duena.

Agirrek burutzen dituen eleberriek ez dute erdigune euskaldun konkretuaren bizipen eta sentipen berezien berri ematea, baizik eta paradigmatik, ereduak ezartzea. Jomuga bat erdiesteko bitarteko ditu eleberriak: euskal izaerak izan beharko lukeena mugatu. Ez du bilatzen euskalduna edo euskal izaera dena deskribatzea, nortasun berezi baten ezaugarriak adieraztea; aitzitik, ereduak, paradigma, bere ideala azaltzera jotzen du. Horregatik bere istorioetan ez da arduratzen euskaldun konkretuaren arazo eta ilusioez, kezka eta pozez. Euskaldun konkretuaren lekua tipoei hartzen dute, ereduak. Errealitatearen ikuspegi sinplearen ondorio da. Errealitatea konplexua izan gabe, sinplea da, besterik gabe. Sinplea da Gizakia bere konplexutasunean ikusi gabe, bi multzotara murrizten delako: ereduak eta antiereduak. Errealitatearen eta gizakia-aren konplexutasuna aurkitu ez duen eleberrigintza da; gizakia ez da itxuratzen aldarrean arabera jokatzeko, batzutan eskuzabal, bestetan zeken, batzutan norberakoi, bestetan gainontzekoen zerbitzuan... Ikuspegia sinplea da gizakion konplexutasunean, alderdi kontradiktorioetan erreparatu gabe, berauen abstrazioa egin eta alderdi bakar bat atzematen delako. Pertsonaia bat erre-presentatzen du eta beste pertsonaia batengana jotzen da kontrako ideia erre-presentatzeko edo beste ideia bat erre-presentatzeko.

Horrela, *Auñemendiko Lorean*, esaterako, morroi leiala eta desleiala irudikatzen ditu; batak ez du behin ere leialtasunez jokatzeko; besteak, berriz, beti jokatzeko du leialtasunez. *Garoan* Inazio Marik demazaletasuna erre-presentatuko du, Juan Andresek, bere aldetik, diruzaletasuna. Handitasun eta birtute guztiak pertsonaia batek erre-presentatuko ditu; beste bat egongo da miseria-aren bat erre-presenta dezan. Inoiz ez da emango pertsonaia berarengan miseria eta birtute nahasketa. Bigarren mailako zenbait pertsonaia hezurmamitzezakoan bakarrik uzten du zertxobait abstrazio-maila hau eta era gizatiarragoan jokatzeko testuratu, ahuleziaren bat erakusten jarritz. Dena den, ilusio txiki bat sortzeko ahalmena besterik ez die ematen; izan ere, ordena zuzena eta okerra bereizten duen marra lodia eta argia izango da eta pertsonaia gizatiarrago horiek izan ditzaketeko tentazioak ez diote tarterik uzten zalantzari. Argi eta garbi kokatu ahal izango dira ordena zuzenaren ardatzean. Ordena zuzena eta ez-zuzena markatzen duen marra inoiz ez dute gaindituko.

Sinpletasuna eta ikuspegi manikeo bitarra nagusitzen da. Ez dago gizabanakorik, ideiak eta hauen erre-presentazioak daude. Gizabanakoaren ordeztu, beste inor ez bezalakoa den izakiaren ordeztu, gizaki-tipoen bizitza ematean, kontzientzia modernoaren iragazitik iragazi gabeko eleberriak hezurmamitzen ditu.

Errealitatea sinplea ez-erik, aproblematikoa da: ez dago ezer bilatu beharrik, bidaiarik egin beharrik, biderik egin beharrik. Gizakiak balore batzuk ditu



eta balore horiei tinko eusten die. Gehienez egiten duena balorez aldatzea da. Aldatu, ordea, ez bide bat burutzearen ondorioz, gogoetaren ondorioz, bilaketa baten ondorioz, baizik eta batpatean emandako aldaketari esker.

Hala, *Auñemendiko Lorea*ko Riktrudis pertsonaia-protagonistak tinko eutsiko dio bere balore-sistemari. Baita Portun euskal buruzagi jentilak ere kristautzen den arte. Baina Portunen balore-sistemak jasaten duen aldaketa ez da berbaldi bihurtu den bilaketa baten ondorio, batpateko iratzartze baten ondorio baino. Riktrudisez maitemindurik dagoen Portunek “Eta zeru orretan guztiak alkar maitetuten dabe?”<sup>3</sup> galdetu ostean eta Riktrudisen erantzuna entzun, -“Guztiak. Ara bazatoz, an maitetuko zaitut. Agur”<sup>4</sup> kristau bihurtuko da: “eta Portun, emakume donea azkenengo ikusi ebanetik laster bere erruak ezaguturik, kristiñau egin zan”<sup>5</sup>. Fede-aldaketa *nola* burutu den ez da azaltzen. Tartean gogoetarik edo bilaketarik egon bada isilune hutsa izan da testuan eta, honenbestez, batpatean egindako aldaketatzat jo behar da eta ez bilakaera baten ondoriotzat.

Antzeko zerbait gertatzen da *Garoan*. *Garoako* Joanesek tinko eutsiko dio bere balore-sistemari. Bada, ordea, *Garoan* balore-sistemaz aldatzen duenik eta, aldaketa hau ere, ez da bilakaera baten fruitu. Azkarragako Martin, Joanesen biloba, Somorrostro aldera joan zen eta “Antxen zegoan ta bertan alperrik galdu zuten Azkarragako Martin, Iñazio Marin semea, Joanesen illoba”<sup>6</sup>. Baserria zuen bizileku eta Somorrostro inguruagatik ordezkatu du. Ordezkaketaren emaitza balore-sistemaz aldatzea izan da. Baina aldaketa *nola* joan den burutzen ez da hitz bihurtzen; isilunea da testuan.

Honela bada, ez da hezurramitzen eginaz doan gizakia eta egite horretan zalantzekin, galderekin, estropezu egiten duena. Honenbestez, ziurtasun-falta hauek eragiten duten problematikotasuna ekiditea lortzen dute Agirrek eta bere eleberrietako pertsonaiek. Zuzenak konforme bizi dira beren erraiekin eta munduarekin: hasieratik eginda dauden pertsonaiak dira. Antzera jokatzan dute zuzenak ez direnak: zuzenak ez bezala, beren grinak ase nahian ibiliko dira, baina beren jokabideak zalantza-iturri bihurtzen ez zaizkienez, ez dute bilatu beharrik, balore-sistema bat eraiki beharrik. Konplexutasuna eta mugimenduaren ordezkari ikuspegi manikeo bitarra eta estatikoa darie eleberriei. Gizakiak burutu dezakeen mugimendu bakarra balore-sistemaz aldatzea da eta berau ez ibiltze baten ondorioz, baizik eta betidanik eraikita dauden bideetan beste batera igarotzea erabaki delako.

<sup>3</sup> TOLEDO, Ana (De.): *Txomin Agirre. Auñemendiko Lorea*, Klasikoak Saila, 65 zkia, Ostoa, Donostia, 1998, 171. or. Aurrerantzean egingo diren aipamenak edizio honetatik jasoko dira.

<sup>4</sup> *Auñemendiko Lorea*, 171. or.

<sup>5</sup> *Auñemendiko Lorea*, 173. or.

<sup>6</sup> ZUPIRIA, Bingen (De.): *Txomin Agirre. Garoa*, Sutondoan Saila, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1987, 167. or. Aurrerantzean egingo diren aipamenak edizio honetatik jasoko dira.

Europako Mendebaldean, gutxi-gorabehera, XVII. mendearen bukaera aldera kokatzen da munduaren ikuspegi esentzialista batetik existentzialera igarotzea. Hau da, balore unibertsaletan, iraunkorretan, behin eta betirako sortuta zegoen mundu batean, guztia esana zeukan mundu batean, eta, honen bestez, balore moralak edo estetikoak aldaezintzat jotzen zituen mundu batean oinarritzen zen ikuspegitik, mundua berrasma daitekeela uste duen ikuspegira igarotzea, balore moral eta estetikoaren balio finkoa balio historikoagatik ordezkatzeko duen ikuspegira igarotzea.

Baina Agirreren eleberriek, mende-mugan idatziak izanagatik, Ertaroko mundu-ikuskerara azaleratzen dute. Ertaroko kulturaren adierazpen gehiago dira, industrializazio modernoaren garaietako kulturaren adierazpen baino: edertasunaren edo itsusitasunaren, ontasunaren edo gaitotasunaren kontzeptuak behin-betikoz mugatuak eman zaizkigu eta ez daude giza esperientziaren baitan. Errealismo eskolastikoaren ikuspegiaren erakuskari dira, errealismo modernoaren garaian idatziak izan arren. Gizarte modernorako urratsa markatzen duen krisiaren kontzientziatik iragazi gabe, Erdi Aroko errealista eskolastikoekin bat egiten du mundua ikusteko moduan eta berau adierazteko moduan. Honela, objektu partikularrak, bereziak, konkretuak atzeman gabe, abstrazioak, klaseak atzematen ditu eta klase horien berri tesi, argumentazio eta korolarioekin ematen du.

Abstrazioak, klaseak atzematen ditu eta ez zirkunstantzia berezitan bizi diren gizabanakoak. *Auñemendiko Loreako* Pedro Mari klase baten ordezkari da: morroi leialarena. Izen propioa eman dio, baina hor amaitu da banakotzeko ahalegina; izan ere, istorioan barrena jasotzen duen tratamenduak ideia bat azaltzeko tramankulu bihurtzen du: leialtasuna. Edo *Garoako* Inazio Mari demazaletasuna irudikatzeko bitarteko izango da.

Abstrazioak, klaseak atzemate hau ez da pertsonaietara mugatzen, aitzitik, istorioaren euskarri guztietara. Berdin-berdin gertatzen da, esaterako, istorioen gertaera-lekuekin. *Garoan* mendia, baserria, hitz batean, goi-aldeak, Somorrostro aldeei, kaleei, hitz batean, behe-aldeei aurkajartzea bilatzen du. Aurkakotasun hori azpimarkatzea da garrantzizkoena. Lekuklaseak, leku-tipoak daude eta ez leku berezi, partikularrak. *Garoako* Aloña mendia edo Zabaleta baserria Euskal Herriko beste edozein mendi edo baserriren antzekoak dira. Mendia edo baserria azaldu nahi da eta ez mendi edo baserri konkretua, berezia, partikularra. Hain da hala leku-klasea azaltzea nahi dela, *Auñemendiko Loreako* protagonista den Riktrudisen etxea, Mendiola jauregia deskribatuz hasten den kapitulua “Euskal etxea” tituluak irekitzen duela.

Azken batez, istorioen bidez tesiak ezartzen dira, tesi hauek argumentatzen dira eta ondorioak ateratzen. Esaterako, *Garoako* kontalariak “Ai zenbat euskaldun zabartu diran Somorrostroko lur gorrietan”<sup>7</sup> dio. Joanesen biloba

<sup>7</sup> *Garoa*, 167. or.

Martinek tesi hori ejenplifikatu eta aldi berean argumentatu egingo du. Martin ez dator kontaktetara gizanabako moduan, baizik eta Somorrostron “zabartu” den euskaldun-multzoaren ordezkari legez, giza talde hori ejenplifikatzera eta aldi berean kontalariaren tesia argumentatzera. Martini egokitu zaio ideia hori irudikatzea, bere aita Inazio Mariri “Azoka ta dema zalea da euskaldun base-txetarra”<sup>8</sup> tesia ejenplifikatzea eta bide batez argumentatzea egokitu zaion bezala.

Beraz, Ertaroko errealista eskolastikoen ikuspegia azaleratzen du, kontatzeko modu eskolastiko baten bidez. Alegia, mundua ikusteko modua eta mundu hau adierazteko darabiltzan moduak elkarri hertsiki loturik daude. Errealista eskolastikoen mundua errealista eskolastikoen moduan emana.

Agirrereren biografiak apaiz egin zela erakusten digu. Hori izan zen bere aukera eta bizitza guztirako aukera, gainera. Dirudienez, Apaizgaitegian nahi beste urte igarotzeko modurik ez zuen izan, bere familia diru-laguntza handietarako ez zegoelako. Horrela karrera laburrekin etsi behar izan zuen, luzea egiteko behar beste sosik ez zuelako eskurazterik izan. Apaizgaitegiko egonaldia halabeharrez laburra izan bazen ere, arrasto sakona utzi zion, metodologia-mailan behintzat. Garai hartako apaiz-ikasketetako azalpenak Eskolastikoeak aurkeztutako egituratze-moduaren arabera taxutzen ziren. Agirrek, ikasketa hauek utzitako arrastoak, ez zituen gorde sermoiak prestatzeko bakarrik, aitzitik, bere idaztekinzara erabat zabaldu zituen: eleberriak lekuko. Klase eta abstrazioen munduan kokatzen delako ez du kontzientzia modernotik iragazi den eleberrigintza hezurmamitzen; izan ere, kontzientzia modernotik iragazitako eleberrietan zirkunstantzi berezitan bizi diren pertsonaia partikularrek ehotzen dute mataza.

Geldirik dagoen mundua da Agirrek aurkeztu duena, baita bere ametsa ere. Balore konkretu batzuk defendatuz, geldirik dagoen mundua du gogoko. Mundu iraunkorra. *Kresalan* bertan mendien iraunkortasunak liluraten zuten:

“Beti dagoz bere-berean, beti era batekoak Jaungoikoak dakien gizaldietan.

Gure aitonak ostera jaioko balira, ez litukie euren ondorengo asko ezagutuko beste iritxikoak bihurturik eta beste itxurakoak dagozalako; baiña mendiak bai: mendiak ez dira aldakor, lengo-lengoak dagoz, beti batean”<sup>9</sup>.

Bizi duen errealitateak erakusten dio ohiturak, sinesmenak, gizartearen antolamendua... bilakaeraren eta aldaketaren menpe daudela, baina gizakia

<sup>8</sup> *Garoa*, 79. or.

<sup>9</sup> ALBERDI, Mirari; ARRETXE, Jon (De.): *Txomin Agirre. Kresala*, Sutondoan Saila, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986, 189. or. Aurrerantzean egingo diren aipamenak edizio honetatik jasoko dira.

entitate finkotzat jotzeari eutsi nahi dio, entitate historikotzat jotzearen aurrean amore eman gabe.

Agirre mundu ziur batean bizi da, zoru tinkoa zapaltzen du. Ez dago lurrikararik. Usteak, sinismenak, ohiturak, bizimodua, baloreak... ez dira gizaki bakoitzak bere subjektibotasunaren iragazitik iragazi behar dituen elementuak. Gizabanakoak ez du bilatu beharrik bere balore-sistema. Balore unibertsalen eta iraunkorren munduan bizi da.

Balore iraunkor hauek euskal gizarteak gidari izan ditzala nahi du. Horretarako eleberriaren hasieratik eginda dauden pertsonaiak aurkeztuko ditu, nortasun zehatza dutenak. Istorioaren garapenak pertsonaia hauen nortasuna azpimarkatu besterik ez du egingo. Lekugune iraunkor batean bizi dira, gizakiak eragindako transformazioen menpe ez dagoen lekugune batean (mendia, baserria, itsas-herriska). Artzantza, arrantza, nekazaritza dute ogibide. Biziki gogoko dituzte leku eta lanbide horiek eta pozik bizi dira. Besterik gertatzen da arbuiatzen diren ereduakin: ez lekugune horiek gogoko dituzte, ezta lanbide horiek ere. Gainera, arrazoiren bat edo beste bitarteko, ernegatuta bizi dira.

Balore iraunkorrei atxikirik bizi direnei betiko zoriona agintzen die. Riktrudis, *Auñemendiko Lorea*ko protagonista, “zeruetan sartzeko eukan gurari andi gozo-gozo batek il eban Auñemendiko Lorea” eta “Elizeak... urte batzuetara, altaretan ipiñi eban”<sup>10</sup>. *Kresalan* barrena azaldu dituen arrantzaleek ere jasoko dute saria:

“Iñok ez ditu itxas barruetako zuen lanbide garratzak eta ibilbide leñargiak ikusten ondo, ta gitxik goratuten zaitue bear dozuen aiñan; baiña Jaungoikoak dakus zeru goietatik eta berak goratuko zaitue egunen baten. Berak dauka zuentzat gordeta azkensari ederra, ez erramuetan, igarian edo *arraiña joten* dakizuelako, ezpada eroapen andiko ta biotz oneko kristiñau zintzo ta egiazkoak zarielako bai-zen”<sup>11</sup>.

*Garoa*ko protagonista erraldoiak “laztan bero, gozo, luzearen bitartez ematen dio Joanesek Egille Altsuari anima, euskaldun animarik ederrenetakoa...”<sup>12</sup>.

Ereduek jasoko duten saria da eta antierduiek gal dezaketena. Beraz, hobe balore iraunkorrei atxikirik bizi izatea.

Erantzunak dituen mundua da Agirrereña. Ziur eta tinko sentitzen da. Ez dago zalantzarentzat tokirik.

<sup>10</sup> *Auñemendiko Lorea*, 172. or.

<sup>11</sup> *Kresala*, 188. or.

<sup>12</sup> *Garoa*, 256. or.

Balore eta ziurtasun erabateko hauen mundua erortzen hasia zen ordurako eta geldi zitezkeen azkenengo hondarrak mende-mugako krisia ez zuten igaro. Errauts bihurtu zituen. Errealitatea konplexua eta problematikoa izaki, ezin adieraz daiteke hain modu sinplean. Eleberriak ezin iraun entzungor. Egoeraz jabetu eta bere erantzuna emango du, baina Euskal Herriko gizartea mende-mugako zurrumbiloak harrapatua sentitu bazen, zurrumbilo horren nondik-norakoa ez zuen adierazi euskal eleberrigileak eleberriaren bidez.